

JAZARPENA ETA ZIBERJAZARPENA DETEKTATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK

Eskolako jazarpenaren prebentzioan, behar-beharrezkoa da jazarpen-egoera posibleak detektatzeko eta ebaluatzeko modua emango diguten tresnak eskura izatea, ondoren esku-hartzea bideratu ahal izateko eta, hala, *bullyinga* gure ikastetxeetatik desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.

Tresna hauei esker, jazarpen-egoera posibleei buruzko informazioa bilduko dugu jazarpena gertatzen den lekuan bertan, eta, horrela, hobeto jakin ahal izango dugu zer ari den gertatzen, hala kantitateari nola kalitateari dagokionez.

Alde horretatik, tresna zehatzak eta baliozkoak erabiltzea ezinbestekoa izango zaigu informazioa eta datuak bildu ahal izateko, eta gero informazio eta datu horiekin datu-basea osatu eta hezkuntza arloko esku-hartzea diseinatzeko.

Informazio hori lortuz gero, alde batetik, hautsi egingo dugu jazarpen-dinamiketan nagusi den isiltasun-kodea, zeinak izugarri zailtzen baitu jazarpen-arazoa konpontzea, eta, bestetik, egoerari aurrea hartu ahal izango diogu, eta larriagotzea eragotzi.

Komenigarria da informazioa askotariko iturrietatik lortzea: zenbat eta iturri gehiago, orduan eta emaitza zehatzagoa lortuko dugu (Avilés, J.M. 2013).

Era berean, garrantzitsua da ikastetxeko **BAT taldeak** egoera detektatzeko, egoera ebaluatzeko eta datuak tratatzeko tresnak aukeratu eta martxan jartzeko prozesu osoa zuzentzea eta koordinatzea, tresnak oker erabil ez daitezela eta eraginkor izateari utz ez diezaioten.

Horrez gain, kontuan izan behar da eskolako jazarpena ebaluatzeko moduak ez direla hutsezinak eta guztiek dituztela argi-ilunak. Avilés J.M.-ren lanetik egokitutako koadro honetan laburbiltzen dira informazioa lortzeko iturri nagusiak.

ZUZENEKO BEHAKETA	AUTOINFORMAZIOA	HETEROINFORMAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> Naturala Artifiziala Jolas-orduko laguntzaileak Ikasle begiraleak Ikasle laguntzaileak Bizikidetzazirkuluak Zibermentoreak Audio- eta bideo-erregistroak ... 	<ul style="list-style-type: none"> Autotxosten egituratuak Kontrol-zerrendak Galdetegiak Arrisku-mapak Autonarrazioak Autoerregistroak Marrazkiak ... 	<p>Berdinengandik lortutako informazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Metodo soziometrikoak Berdinen izendapena <p>Berdinen arteko laguntza-sistemak</p> <ul style="list-style-type: none"> Laguntza-taldeak Bizikidetzazirkuluak Zibermentoreak ... <p>Helduengandik lortutako informazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskola-jazarpenaren aurkako intzidentzia-egunkariak Aurreko irakasleen txostenak Behaketa-orriak Elkarrizketak Banakako tutoretza Irakasle taldearen bilerak HIBP Familien txostenak...